



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2020/08/18AN

Gaur egungo egoera Arabako Errioxan

Uztaileko azken astean eta abuztuko lehen hamabostaldian ekaitzak izan dira maiz, muturreko bero egunekin batera. Aldagai meteorologiko horiek ondorioak izan dituzte mahastien bilakaeran.

Ekaitzen ondorioz, ez du euria berdin bota eskualde osoan, ezta txingorra ere: Bastidan 30ean; Navaridasen, Lezan eta Paganos-Guardian abuztuaren 11n, eta Binasperi-Lantziegon eta Kripanen abuztuaren 12an. Ura, oro har, onuragarria izan da, garai honetan gertatzen ari den kolore-aldaketa eta heltze prozesurako mesedegarri baita. Uztaileko eta abuztuko txingorrak eta ekaitzekin batera izan diren haize bortitzek kalte heterogeneoak eragin dituzte 200 bat hektareatan. Ekoizpenean izandako kalteak ez dira oso esanguratsuak izan kaltetutako azaleraren zatirik handienera, eta txingorraren kolpeek eragindako zauriak ondo orbaintzen ari dira.

Arabako Errioxako mahastiaren egoera fenologikoa ez da berdina eskualde osoan. Arabako Errioxako mahasti guztiak kolore-aldaketa prozesuan badaude ere (M1 edo M2), ekialderago eta Ebrotik hurbilago dagoen zatian, heldu aurreko fasea hasi berria da (N). Eremu garaienak, txingorrak eta mildiuk edo oidioak kaltetuenak, atzeratuago daude, eta mahats mordo asko daude oraindik erabat berde. Bero handien ondorioz, laborearen garapena moteldu egin da; izan ere, kolore-aldaketa prozesuaren hasieran, astebete eta hamar egun artean aurreratuta zegoen, baina, gaur egun, aurrerapena astebete eskasekoa besterik ez da, batez beste.

Kanpaina honetan, mildiuk eragin handia izan du, bai eta oidioak ere, azken asteetan, mahasti isolatuetan. Hori dela eta, mahastizainek laborea osasuntsu mantentzeko ahalegin handiagoa egin behar izan dute. Gaur egun, egoera, oro har, kontrolpean dago, nahiz eta ezin izan den ekidin ekoizpena txikiagoa izatea Arabako Errioxako mahastizaintzako azaleraren zati batean.

Oro har, esan daiteke mahastiak ondo heltzea espero dela; izan ere, mildiuk gehien kaltetu dituen eremuetan, mahats mordo solteak eta luzatuak daude, eta neurrizko ekoizpena dute, (gaixotasunaren ondorio positiboak), eta, mildiuk ia kalterik eragin ez duen ekialdeko eremuan, ekoizpena orekatua da, eta horrek guztiak kalitatezko uzta izango dela pentsarazten du. Azpimarratzekoa da mahasti ekologikoen askoz ekoizpen txikiagoa izango

dutela kanpaina honetan; izan ere, mahasti horietan, tratamenduak nekez izan dira gai milduari hain baldintza erasokorretan eusteko.

Hemendik aurrera, heltze fase kritikoan sartuko gara, mahats bilketara arte. Horrenbestez, udako baldintzak izaten jarraitzea komeni da; alegia, hezetasun gehiegi ez izatea eta gauak freskoak izatea; izan ere, horrek heltze prozesuan eta mahastiak osasuntsu izan daitezen laguntzen du.

Egoera normala bada, tempranillo beltzaren mahats bilketa Moredan, Lapueblan eta Arabako Errioxako beste eremu goiztiar batzuetan hasiko da, ziur aski, iraileko hirugarren astetik aurrera. Garaiera handiagoan dauden mahastiak astebete edo hamar egun geroago helduko dira enologikoki. Eskualdean, tempranillo zuria eta kanpoko barietate zuriak oso urriak dira. Horien bilketa aste honetan hasi da jatorri deitura kalifikatuko eremurik goiztiarrean, eta Arabako Errioxan abuztuaren amaieran izango da, segur aski, biltzeko baldintzarik onenetan.

Arabako Txakolinaren gaur egungo egoera

Arabako Txakolinaren eremuan, baldintza meteorologikoak Arabako Errioxan izandakoen antzekoak izan dira, baina ekaitzek ez dute ia euririk utzi, ez eta, zorionez, txingorrik ere.

Laboreak gutxienez astebeteko aurrerapenarekin jarraitzen du, eremu horretan izan ohi denarekin alderatuta, eta jatorri deituraren barietate nagusia (Hondarribi zuri) kolore-aldaketa prozesu betean dago. Petit courvu barietatea zertxobait atzeratuago dago.

Mahastien osasun egoera bikaina da. Mahastietan nabaritzen hasia da uda osoan prezipitazio gutxi izan direla, eta horrek eragina izango du, zalantzarik gabe, azken ekoizpenean, zeina txikiagoa izango baita.

Baldintza klimatologikoek bere horretan badiraute, mahats bilketa irailaren erdialdean hasiko dela kalkulatu da, hau da, ohi baino pixka bat lehenago.

Gorabehera nabarmenik ez badago, egoerari buruzko hurrengo txostena irailean egingo da.

Guardia, 2020ko abuztuaren 18a

**MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA
NEKAZARITZA SAILA**